

Traintic-ek eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak lankidetzan hitzarmen bat sinatu dute.

2009/11/09

Azken urte hauetan Mondragon Unibertsitatea bultzatzen ari den ikerketa jardueraren markoan, Trainic-ek – Trenen sektorean neurrira egindako irtenbide teknologiko eta komunikazioak hornitzen dituen enpresa- eta Mondragon Unibertsitateak ikerketarako lankidetzan hitzarmen bat sinatu dute.

Mondragon Unibertsitateak horrela nahi duten enpresekin lankidetzan hitzarmenak sustatzen ditu. Hauen bidez, unibertsitateak egiten duen oinarriko eta aplikatutako ikerketa enpresen behar eta nahietara zuzenduz. Modu honetan, bi aldeen indarrak batzen dira aurrez adostutako helburuak lortzeko asmoarekin.

TRAIINTIC-ek hainbat urte daramatza tren-industriaren inguruneko Informazio Sistema eta Komunikazioen ikerketa lerroak lantzen. Horrela, honako gai hauen inguruko esperientzia jaso dute: trenaren kontrol sistema eta ikuskapena, trenaren erregistro sistemak, komunikazio protokoloen inplementazioa, trenaren eta lurraren arteko komunikazioa, analisirako erreminta espezifikoak...

TRAIINTIC-ek eta GEP-MUK 2003tik dihardute elkarlanean honako gai hauetan: komunikazio protokoloen kontrol eta sarbiderako plataforma generikoen garapena, diagnosirako erremintak, ingurune arrotzetako protokoloen analista, ikuspegi artifizialeak ...

Elkarlanean egindako lan honek, Telekomunikazioetako Ingeniaritzako eta Ingeniaritza Informatikoko ikasleak ikertutako gaietan formatzeaz gain, etorkizuneko ingeniariak enpresa errealean erronka teknologikoetara gerturatzeko balio izan du.

Beraz, hitzarmen hau urteetako harremana formalizatzeko izango da, non Traintic-eri Garaiaiko Campusean eraikitzen ari den eraikuntzan, Sistema Txertatuen Laborategiaren barruan, ikerketa gela espezifiko bat jarriko zaion. Gune hau enpresaren eskura egongo da eta beharrezko materiala izango du, baita ikasleak eta hitzarmenean jasotako ikerketa gaietan formazioa jasoko duten langileak ere.

